

2112903 jarduera

1- Entzun aurretik

1.1 Jone jakin-min

Jon eta Joneren arteko elkarrizketan, Jonen aurreko maitasun istorioei buruz arituko dira. Irakurri elkarrizketa-zatia eta erantzun galderei.



JONE: Jon, akordatzan pasadan astean nola esan zenidan bi pertsonekin maiteminduta egotea posible zela?

JON: Bai

JONE: Eta zu ere izan zarela inoiz?

JON: Bai

JONE: Nirekin ateratzen zinenean gertatu zitzaizun?

JON: Esan nizun baita ere ez nizula sekula esango.

JONE: Ez dut kontu ori burutik kentzen.

JON: Ez da hainbesterako Jone, aspaldiko kontuak dira.

JONE: Ia, baina esan zenidanetik, ez diot bueltarik ematen, erantzunak beldur ematen dit, baina nahiago dut jakin.

JON: Bai hori esaten duzu orain, baina gero, erantzuna jakiten duzunean, gehiago jango duzu burua

JONE: Orduan egia da... nirekin zen.

JON: Jone.

JONE: Eta norekin maitemindu zinen? Eta zergatik geratu zinen nirekin?

JON: Jone.

JONE: Zergatik ez zenidan ezer esan?

JON: Jone, horrelako gauzak ez dira inoiz esan behar.

JONE: Nola ez direla esan behar, Jon, Norekin maitemindu zinen?

JON:

1. Zer erantzungo dio Jonek Joneri zure ustez?

2. Non aurkitu dituzu hori pentsatzeko arrazoiak?

1.2 Jonen erantzuna

Ikaskidearekin partekatu ariketan egin duzun hipotesia. Arrazoi berdinak topatu al dituzue elkarrizketan?

Entzun elkarrizketaren lehen zati osoa Jonen erantzuna zein izan den jakiteko eta behean idatzi. Asmatu al duzue?

2- Entzun bitartean

2.1 Galderei erantzun

Elkarrizketa osoa entzungo duzu galdera honi erantzuteko:



2112903 jarduera

Jonerekin zegoen garaian, Jonek izan al zuen bestelako harremanik norbaitekin?

- Ez. Jonerekin utzi ondoren izan zen
- Neska filipinar batekin izan zuen istoriotxo bat
- Bai zerbait izan omen zuen, baina ez dio esan norekin
- Noizbait izan omen zuen adarrak jartzeko gogoia, baina azkenean, ez zuen egin

2.2 Jone temati jarri da



Hemen dituzu Jonek Joni egin dizkion hainbat galdera Jonen maitasun-kontuez ahalik eta gehien jakiteko. Zer erantzun dio Jonek? Entzun berriro elkarrizketa eta eman erantzuna labur-labur.

1. Berarekin zegoela gertatu ez bazen, noiz egon zen bi pertsonekin maiteminduta aldi berean?

2. Nolako harremana izan zuen neska harekin?

3. Eta bigarrena nor zen?

4. Zerbait sentitzen al du oraindik haietako bi nesken batengatik?

3- Entzun ondoren

3.1 Zer egingo zenuke?



Jonek jakin du Jon beste batekin ibili zela berarekin zegoen garaian, baina ez dakigu zer pentsatu duen hori jakitean.

- Bere lekuan egon izan bazina, zer egingo zenuen une hartan?
- Eta orain, urteak pasa direnean, zein izan beharko luke Joneren jarrerak?

Komentatu talde txikian aurrena, eta ondoren, eraman zuen iritzi eta hipotesiak talde handira. Zer pentsatzen duzue gehienok?



Adibide hauek zuen hipotesiak egiteko garaian lagungarriak izan daitezke Iraganeko egoeraz hitz egiteko

- *Momentu hartan jakin izan banu, etxetik alde egiteko eskatuko nion/niokeen*
- *Niri iruditzen zait orduan garbi hitz egin izan balu, barkatuko niola/niokeela*
- ...

Egungo egoeraz hitz egiteko

- *Nahiz eta igarotako zerbait izan, ez nuke jarraituko berarekin. Behin egin badu...*



2112903 jarduera

- *Nire ustez, iraganean egindakoak ez luke zertan oraingoa baldintzatu beharko, horregatik, pentsatzen dut aukera bat emango niokeela*
- ...